

GUCIZCO JAUN NOBLE

Aritz Urrutia Frias, 17 urte

Irurita

–**Ynindií haayama ummah** (soldaduok, eraso herria). – Hattama aduu masiihí (suntsitu etsai kristauak).

–**Rubbaan, la yaish, la difaa´** (kapitaina, ez da ejertzitorik, ez da defentsarik).

–**La salaam, gaatala, ma´rakah, harb** (ez da bake-rik, borroka, gudua, gerra). – **HARB, HARB, HARB!!!** (gerra, gerra, gerra!!!).

Lehen gudu hotsetatik ez da denbora anitz pasa. Orduan lau herrixka ziren eta orain aldiz, geure mugen barnean preso hartu gaituzte. Luzaro eutsi diegu inolako laguntzarik gabe, errege eta erreginak bakea mantentzeko egin dituzten ahalegin guztiek, apezpiku ero batek pikutara botako dituen beldur gara, ordea. Iparraldeko erreinuak bakea mantendu nahi du eta, behin eta berriz bidaltzen dizkie eskutitzak buruzagi arabiarrei, beren izena, merkatari arabiarrei berei erasoz, zikintzen dutenak zigorra jasoko dutelako berria bidaliz.

Gucizco jaun noble

Çure humanitate handi gende preftu guciez laudatua excufa efca guran naicelarik, Çure humanitateaz becembatean excufa iafoço dutelaric. Errudunac ilkiric ikufh ciradela beroren buruac.

Baquea Çurequin, Salaam Aleikum

Apezpikua ez zegoen konforme erregearen, bakea mantentzeko ahaleginekin. Erregeak beti eskutitzarekin bizpahiru gerlari bidali ohi zituen, baina, halakoan nahiago izan zuen bere txikitako lagun eta zerbitzari leiala bidali. Gizon jakintsua bezain gerlari ona zen Pedro eta erregearen armadaren buru izateaz gain, gorteko kide garrantzitsua ere bazen. Hala ere, ez zuen botereak itsututa jarduten, gizon umila zen.

Erregearen zigiluak babesturik bideari ekin zion. Ez zuen hegoaldera jo zuzen-zuzenean, mendebalderantz abiatu zen lehenik. Bere gizon eta adiskideekin hitzaldia izan nahi zuen lehenik. Gerra garaian menpean izan zituen hiru soldadu erretiratu ziren, guduan, berarekin batera gauza handiak lortutakoak hirurak, baina, dena utzi zuten bakea sinatzean. Ez zuten gortearekin zerikusirik izan nahi eta beren bideak banandu egin ziren. “Adifquidea hitza ecen gure bicibide”. Orain egin beharreko bideak sortutako kezkek bultzaturik laguntza eske doakie, ordea. Erregearen agindua argia zen, bakarrik joan behar zuen arabiarrenera, baina, hurrengo ilabeterako itzuliko ez balitz, haren bila irten beharko lirateke, *“hatzaman içanen bainaute”*.

Bideari ekin zion Ebrotik harago zegoen hiri handi eta ospetsua zen Zaragoza helburu zuela.

Bidaia luzea gizon bakar batek egiteko, luzeegia inolako erasorik ez izateko. Nafarroako erreinuko muga babesten zuen azken gotorlekua bistatik galdu orduko, bost zaldun muinoan behera lauhazka bizian zetozenak inguratu zitzaizkion. Ez zuen atzera begiratu. Orduak pasa ziren eta zaldiek nekea pairatzen hasi ziren, zaldi noblea zen eta bazekien ez ziola huts egingo, hala ere, zaldunak jasango ote zuen? Bai, gaua heldu zen eta iluntasunak babestuko zuen. Ez zen, ordea, iluntasuna izan segika zituen bost zaldunak geziz gurutzatu eta akabatuko zituena, arabiarren elitezko gerlariak osatutako taldea baizik. Aurpegia guztiz estalirik zeukatzen gizonezkoen taldea ematen zuen eta ulertzea lortu zuenagatik, Burgoseko hiritik zetozen. Zaragozako kaliferriko buru zenak deituak izan ziren, erreinu kristauan sartu eta bere herriari horrenbertzeko kalteak egiten hari zirenak hil eta mendekatzeko asmoarekin. Eskutitza erakutsi zien eta beren babeska eskaini zioten.

Zaragozara iritsi zirenean, lau egun eta lau gau pasa ondoren, gerlariak kalifaren aurrera eraman zuten mezularia. Beren babesleen aurpegia ikusteko ordua iritsi zen eta sorpresa ederra hartu zuen bere babesleak emakumezkoak zirela ikusi zuenean. Arabiarren artean horren famatuak ziren elitezko gerlariak, emakumezkoak ziren.

–**Silaah, ramaa'** (armak, jaurti)

Zaindarien armak kentzen zizkieten bitartean, gerlarietako batek, berarekin hitz trukea izandako bakarrak, gertakizunen berri eman eta soldaduek

zeramatzaten elizaren ikurrak erakutsi zizkion kalifari. Pedrok ez zuen sinisten ahal. Apezpikuaren traizioa, bera izan da denbora guzti honetan era-soak agindu dituen, bera da erregearen lana oztopatzen saiatzen dena.

Kalifak orduan, mezulariari zuzentzen zaio. Ez du, ordea, erantzunik jasotzen. Barne hausnarketa batean murgildua dabil. Pentsakor erantzuten dio, berriemaileak itzuli egiten du bere ahotik ateratzen dena. Horrek ere harritzen du. Zergatik ez dio hitzik ere erran lau egun hauetan, hizkuntza uler-tzen bazuen? Hala ere, ez du garrantzirik. Kalifari erregearen lanaren berri ematen dio, bere esfortzu guztien berri, baina bere jarduera baketsua oztopatzen zuena aurkitu du eta lehenbailehen itzul-tzeko baimena eskatzen dio, traidorea nor den salatzeke eginkizuna duelako.

Kalifak, ezagutu berri duen informazioak arazo-ak ekarriko dizkiola aurreikusirik, Pedrori emaku-mezko gerlarietako batek laguntzeko agindua ematen du eta buruzagiak bere burua eskaintzen du bere bidaia kidea izateko.

Itzulerako bideari ekiten diote, arabiarren lurrak egunez zeharkatzen dituzte, inolako beldu-rik gabe, baina kaliferriko eta erreinuaren arteko mugara iritsitakoan... ezpata hotsak. Iritsi ordukoa lurrean etzanda, hiltzorian dauden soldaduen aiz-kora eta ezkutua; hiruetan apalenak, bi ezpata eta azkenak, lantza. Hiru itzal ezezagun, hiru itzal lagun. Hurbiltzerako hitzik ere erran gabe...

–Apezpiciuac, Romaco eličan icenean errege achilotu du etfai arabiarrarequin tratua içanagatic.

–Erreinua menpean hartua içana du eta gerraraco preft içateco.

–Ezcara ongi etorriac.

Zaldiak hartu eta, zer egin? Erregea preso non aurkitzen den jakitea izanen da beren lehen egin-kizuna. Gizonak diotenez, apezpikuak Iruñean jarri du bere egoitza eta bertako presondegian edukiko du erregea preso. Bere lagunen babes guztia duela jakinik, Pedrok lana azaltzen die. Taldean sartu berri den kide arabiarraz baliatuko dira espetxean sartzeko eta hil berri dituzten soldaduen arropekin ez dituzte ezagutuko. Gero erregea bilatu eta askatu. Plan sinplea, baina, gauzak zailduz gero...

Iruñean arazorik gabe sartzea lortzen dute. Gotorlekurantz abiatzen dira eta pentsatua zuten bezala preso arabiarra espetxeratzeko baimena eskatzen dute. Soldaduek, ordea, ez diete beraiei uzten preso arabiarra espetxeratzeko baimena eskatzen dute. Soldaduek, ordea, ez diete beraiei uzten preso dagokion gelaxkan sartzeko. Kezkaturik daude beren lagunaren zortea zein izanen den, baina, alarma hotsa entzuten da orduan, presoetako batek ihes egin du. Lasterketa bizian abiatzen dira korridore ilunetan zehar, soldaduak alde guztietatik ateratzen dira, baina, aurrez aurre topo egiten dute kideek. Jarraitzeko eskatzen die emakumezkoak. Gurutzatzen dituzten korridore estuetan zehar soldadu hilak daude nonahi.

Elkarri begirutzen diote harriturik. Orduan hitz bakar bat ateratzen da bere ahotik...

–**Maahir** (abilezia)

Ez dute zer erran nahi duen ulertzen, baina ezin sinetsirik dabilta. Horren denbora laburrean, horrenbeste soldatu hiltzeko trebetasuna... elitearen buruzagiaren ezaugarriak ez bairik gabe. Bat-batean ate sendo baten aitzinean gelditu egiten da. Aizkorakada batez atea bota eta bertan aurpegia estalirik zegoen gizona askatzen dute, erregea? Ez, lapur bat bertzerik ez. Segada batean erori dira.

–*Adifquideoc!*

Soldaduak pilatzen hasten dira beren bizkarretan, korridorean zehar datoz. Gerlariak armak ateratzen dituzte, arabiarrak, ordea, arkua. Geziak jaurtitzen hasten da, ez du bat ere ez huts egiten. Hala ere, ezinezkoa da borroka saihestea. Hogeitik gorakoa da hildakoen kopurua. Tarte bat irekitzea lortzen dute eta bertatik ihesari ekiten diote. Bizpahiru gehiago akabatzen dituzte irteerako atea gurutzatzearekin batera. Beren begirada eskaileretan jartzen dute orduan, traidorearekin hitzaldia izan nahi baitute. Bertako iluntasuna bi zaindarien zuzien argitasunarekin hausten da. Ez du merezi esperantza faltsurik ematea eta zuzenean lepoa mozten diete. Atea ostikada batez edeki eta indarrean sartzen dira. Oraingoan bai, erregea dute begi bistan, zutik, eskuak loturik eta begiak estalirik. Apezpikua itzaletik irteten da orduan, dokumentu bat eskuan duela. Bertan, erregeak botere osoa uzten du elizaren eskuetan, erreginaren bizia ziurtatzeko.

Traidorea irribarretsu azaltzen da, orduan, Pedro berarengana hurbildu eta ezpataz zeharkatzen du handinahikeriaz usteldutako gorputza. Erregea askatzen dute. Ez dirudi konforme egingdakoarekin, kezkatua baizik. Apezpikua hilda elizak militarri parte hartuko du, gerra deklaratu dioten beldur da. Politika ez da garrantzitsuena memento honetan, baizik eta, erregea leku segurura eramatea. Gaua heldua da dagoeneko eta aukera hori probestuko dute ihes egiteko. Gotorlekutik teilatuan barna irten eta harresitik kanpo soken bitartez aterako dira. Basoan ezkutatutako zaldiak hartu eta emakumezkoaren senari jarraituz Zaragozako bideari ekiten diote bigarren-goz.

Oraingoan ez dute oztoporik aurkitu bidean, bidaia lasaia izan da, gorabeherarik gabea. Emakumezkoak atsedean hartzera bidaltzen dituen bitartean, bera kalifaren aurrera azaltzen da. Lehenik eta behin, babesa eta ostatua eskatzen du bere gonbidatuentzat eta behin agintariaren onespena lortu duela, Erreinuak bizi duen barne egoera korapilatsuaren berri ematen dio. Kalifa ez dago bere gerlariak betetako paperarekin arras ados, babesa eskaintzea eta bere helmugaraino laguntzea zen bere egin beharra, ez du ulertzen zergatik lagundu dien erregea askatzen... ez zuen zergatirik.

Hurrengo goizean, erregea eta bere gizonak, agintariaren aurrean, mahai baten inguruan jarritzen dira, egoera aztertzeke asmoz. Kalifak, errege-

aren intentzioak zeinek diren galdetzen dio, eta honek bere erreinua berreskuratzea duela helburu. Arazoa, hori nola lortu izanen litzateke. Pedrok bi aldeentzako onuragarria izango litzatekeen pak-tua sortzen du eta mahai gainean bi agintariek sinatzeko moduan uzten du. Bertan aipatzen diren baldintzak, hauek dira: Zaragozako kaliferriak Nafarroako erregea militarki hornitzen du eta garaipena lortutakoan Nafarroako erreinua arabiarren menpeko erresuma bezala azalduko litzateke, baina erregea agintari moduan onartuz. Erregeak sinatu egiten du, bere herria berreskuratze-ko aukera bakarra delako. Kalifak aldiz, mezulariak bidaltzen ditu penintsula guztira agintarien ones-pena eta laguntza lortzeko.

Bitartean, elizak bidalitako ejertzittoa Iruñean sartzen ari da. Egunero zeharkatzen dute ehunka gizonen harresiko atea. Hala ere, arabiarrek ez dira atzean gelditzen. Martxan jartzen dira gizonak, zaldunak aurreratzen egiten dira beren jaunen erabakiak jakinarazteko. Bien bitartean, kalifak bere gerlariak muga zaintzera bidali ditu.

Ilargi betea bukatzeaz dago eta ejertzittoa arabiarrek Nafarroa hegoaldetik iparraldera zeharkatzen du. Iruñako atea begi-bistan izan arte ez dute aurrera egiteari uzten.

–**Yundií haayama ummah** (soldaduok, eraso herriari).

Lehen eraso hotsak entzuten dira, geziak alde batetik eta bestetik, eskailerak harresiaren kontra, arietea atea etengabe jotzen... Erregeak eta bere bost

kideak ez dute erasoan parte hartzen, atea erortzean hirian sartuko dira eta gudua gelditzen saiatuko dira, hori da bere helburua. Emakumezkoa, ordea, agintariak deiturik alendu egiten da. Kordobako agintariak, penintsulako agintari gorenak alegia, berea eta bere elitezko gerlariak hiria eroritakoan erregea hiltzeko agindua eman die. Ez da nahikoa erreinua menpean edukitzearekin, kontrol osoa eduki nahi du Europan sartzeko aukera izateko. Gerlariak ez du gogo onez hartu erabakia eta Pedro ohartaraztera doa bitan pentsatu gabe.

Pedro amorraturik dago, lur jota aldi berean, bere lurra salbatzeko eta esku onetan jartzeko ezintasunak barrua jaten dio. Erregeari traizioaren berri ematen dio, badirudi Zaragozako kalifak ez duela zerikusirik izan, baina...

–Adifquieoc, nirequin çaudete?

Ez da erantzuna eman beharrik. Planarekin jarraituko dute, momentua iristean borrokatuko dute eta Jainkoak erabaki dezala haien patua. Emakumezkoak ere bizkarra ematen dio bere herriari eta Pedrori bere abilezia guztia eskaintzen dio.

Zarata gogor batek denak isilarazten ditu, atea erori da. Seinalea eman aurretik, sei zaldunek atek gurutzatzen dituzte...

–Ooooh, Errege da! – Biciric dirau.

–Herriaren çaindariói, utzi borroca, babef çaçue Naffarrac, eliçac in deçan haren gerra.

Hiltzat jotzen zuten erregea berreskuraturik, Nafarroako gerlariak harresiak utzi eta hiria zehar-

katuz gotorlekuan biltzen dira denak. Hura izanen da borrokan sartzekotan guduaren eszenatokia. Behin herriaren babesla lorturik, ez du atzerriko inork lur hori bereganatuko.

Orduak pasa ziren, baina, gudu hotsa geroz eta gertuago zegoen. Elizaren soldaduek ezin izan diote arabiarrei eutsi eta orain, egun batzuez babesle izandakoen aurka halabeharrez borrokatzera behartuak daude. Ez da elitezko unitatearen berririk eta hori ez da seinale ona. Lehen gerlariak lasterketa agertzen dira oihuka, baina, indarra ahotik galtzen dute, erraz erortzen dira. Bat-batean, agertzen dira, itzalak bezala, soinurik egin gabe, baina berrogeita hamar bat gizonen buruan. Ez dute tartean inor aurkitu nahi, horretarako beraiekin doazen gerlariak. Arkuz hiru akabatzea lortzen dute, orain parekaturik daude. Erregea gotorlekuen barnean babestera bortxatzen dute. Ilargi erdiko ezpata daukate bostek eta ezkerreko eskuan bakoitzak arma desberdina.

Azkar mugitzen da eta aizkora pisutsuegia da, inguratu egiten du, ez du gorputzez gorputzekorik nahi, galdu eginen luke. Alde batera salto egin eta lurrean itzulipurdia emanez gerruntzetan labankada ematea lortzen du. Belauniko lurrera jauzi egiten da. Huts egite larria. Bere aurkaria akabatutzat jotzen du. Bere lepondoan ezpata nabaritzean aizkorakada zuzen bat eman eta hankarik gabe uzten du. Odol putzuan akabatzen du.

Ezpatariak eraso azkarrak ditu lagun. Ezpatak alde banatan dituela lasterketa hasten da. Aurka-

riaren eraso saiheterik ez du, baina, hori da berak ezpatak gurutzatuz, aurkariaren bularra lautant zatitzeko behar duen momentua.

Hirugarrenak lantza lurrean indarrez sartzen du. Ez du inolako armarik eskuetan. Arabiarrak eraso jotzen du. Lantzaren kirtenez baliatuz, hau hartu eta honen inguruan, airean, bira ematen du, bizkarra hartzen dio aurkariari. Lantza lurretik askatu eta ziztako zuzenaz zeharkatzen du.

Pedrok eta emakumezkoak, bizkarra bizkarraren kontra borrokatzen dira. Batak erasoari eutsi eta besteak eraso. Pedrok eraso ezpataren orriarekin gelditzen du eta aurkariaren ezpata alde batera jaurtitzen du, bueltako mugimenduan lepoa ebakiz. Emakumezkoak, aldiz, bere taldeko gerlari izandakoari ezpatak bi zati dituela erakusten dio, orriarekin, bere kideak egin duen moduan, eraso saihestu eta puntadun heldulekuarekin erasoz.

Garaipena haiena da. Erregea babestea lortu dute eta herritarren laguntzaz hiria berreskuratu. Berarengatik egin duten guztia eskertzeko, erregek gorteko kide eta zaldun izendatzen ditu. Bere eskuetan erreinuko lurra jartzen ditu, baina... ez dute onartzen. Herria salbu dagoela ikusirik, ez dute zereginik jada. Gerra izan da beti beren bizia eta oraingoan lau gerlari nobleen bideak bananduko dira.

Hirurek, European zehar bidaiatuko dute, nork daki abentura gehiagoren bila abiatuko diren. Pedrok aldiz, emakumezko arabiarraren benetako nortasuna ezagutuko du, bere izenaren berririk

ere ez duelako. Kordobako kalifaren alaba dela aitortuko dio, **Aadila** printzesa. Mediterraneo itsasoan zehar bidaiatuko dute eta uharte txiki batean elkarrekin erretiratuko dira.

Nafarroako erreinua inoiz menperatua ez izanaren arrazoi ederra izanen litzateke horrelako jaun nobleak edukiz gero.